

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



HUAWEI *Ascend* G630

Erabiltzailearen eskuliburua



Edukiak

Lehen urratsak

- 1 Telefonoaren deskribapen azkarra
- 2 Bateria kargatzea
- 4 Nola piztu eta itzali telefonoa
- 4 Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea
- 6 Pantaila nagusia, sarrera
- 10 Aplikazioetarako sarbidea

Nola idatzi testua

- 12 Testua idazteko metodoak konfiguratzea
- 12 Testua idazteko Huawei metodoa
- 13 Testua idazteko Android metodoa
- 14 Testu-edizioa

Telefonoa pertsonalizatzea

- 15 Pantaila nagusiaren estiloa aldatzea
- 15 Gaiak konfiguratzea
- 15 Pantaila-atzealdea aldatzea
- 16 Jakinarazpen-tonuak konfiguratzea
- 16 Pantaila desblokeatzeko metodoa konfiguratzea

Deiak

- 19 Markaketa adimenduna
- 19 Nola erantzun edo ez onartu deiak
- 20 Deien erregistroa bistaratzeko
- 20 Dei bat martxan dela egin daitezkeenak
- 21 Nola egin konferentzia-deiak
- 22 Nola erantzun hirugarren batzuen deiei
- 22 Larrialdi-deiak

Pertsonak

- 23 Kontaktuak sortzea
- 23 Kontaktuak inportatzea eta esportatzea
- 24 Nola kopiatu kontaktuak
- 25 Kontaktuak bilatzea
- 25 Nola gehitu kontaktuak gogokoetara
- 25 Kontaktuak ezabatzea
- 26 Kontaktu bikoiztuak ezabatzea
- 26 Kontaktuen erabilera partekatua
- 26 Kontaktu-taldeak sortzea
- 27 Kontaktu-taldeei mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzea

Mezularitza

- 28 Testu-mezuak bidaltzea
- 28 Multimedia-mezuak bidaltzea
- 29 Mezuei erantzutea
- 29 Mezuak bilatzea
- 29 Mezuak administratzea

Posta elektronikoa

- 31 Nola gehitu POP3 edo IMAP posta elektronikoko kontu bat
- 31 Nola gehitu Exchange kontuak
- 32 Mezu elektronikoak bidaltzea
- 32 Nola berrikusi mezu elektronikoak

Multimedia

- 34 Kamera
- 37 Galeria
- 40 Musika

Interneteko konexioa

- 43 Datu mugikorren konexioa
- 44 Nola ezarri WiFi konexioa
- 45 Haririk gabeko sarbide-puntua

Datuen erabilera partekatua

- 46 Bluetootha
- 47 Wi-Fi Direct
- 48 Telefonoa ordenagailu batera konektatzea

Fitxategi-administratzailea

- 50 Karpetak sortzea
- 50 Fitxategiak bilatzea
- 51 Nola kopianu, ebaki eta itsatsi fitxategiak
- 51 Fitxategiak konprimatzea eta deskonprimatzea
- 51 Fitxategien izenak aldatzea
- 52 Fitxategiak ezabatzea
- 52 Fitxategi edo karpitetarako lasterbideak sortzea
- 52 Memoriaren egoera begiratzea

Aplikazioak administratzea

- 53 Aplikazioak deskargatzea
- 53 Aplikazioak instalatzea
- 53 Aplikazioak bistaratzea
- 54 Aplikazioak desinstalatzea
- 54 Nola ezabatu aplikazioen cache memoria

Telefonoaren kudeatzailea

- 55 Telefonoaren kudeatzaileari buruz
- 55 Telefonoaren azeleragailua
- 55 Memorian espazioa libratzekoa
- 56 Jazarpen-iragazkia
- 56 Energia aurreztea
- 57 Fitxategi-kudeatzailea
- 57 Hasiera-kudeatzailea

Oinarrizko aplikazioak

- 58 Segurtasun-kopia
- 59 Egutegia
- 60 Erlojua
- 61 Eguraldia


Doikuntzak

- 63 Hegazkin-modua aktibatzea eta desaktibatzea
- 63 Tonuen doikuntzak
- 64 Pantailaren doikuntzak
- 65 Data eta ordua konfiguratzea
- 65 Sistemaren hizkuntza aldatzea
- 66 Fabrikako doikuntzak berrezartzea
- 66 Linean eguneratzea
- 67 Irisgarritasuna

Lege-oharra

Lehen urratsak

Telefonoaren deskribapen azkarra



1	Entzungailuetarako sarrera	2	Hurbiltasun-sentsorea
3	Mikrofonoa	4	USB ataka
5	Piztu/itzali	6	Bolumena
7	Egoeraren adierazlea	8	Aurreko kamera
9	Entzungailua	10	Kamera
11	Flasha	12	Bozgorailua

- i** Ez blokeatu hurbiltasunaren eta giro-argiaren sentsorearen inguruko eremua. Pantailan babes-film bat jartzen baduzu, ziurtatu ez duzula sentsorea blokeatu.

Botoiak


↶	Itzuli	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu hau, aurreko pantailara itzultzeko edo uneko aplikaziotik irteteko. • Testua idaztean, sakatu hau, pantailako teklatua ezkutatzeko.
🏠	Hasiera	Sakatu hau, pantaila nagusira itzultzeko.
☰	Menu-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu hau, aukera-menura sartzeko. • Luze sakatu hau, azkena erabilitako aplikazio-zerrenda ikusteko.

Bateria kargatzea



Telefonoaren bateria integratua da, eta erabiltzaileak ezin du atera. Bateria ordeztzeko, jarri harremanetan zerbitzu-zentro baimendu batekin. Ez saiatu bateria ateratzen.

Erabili eman zaizkizun USB kablea eta elikadura-egokigailua, telefonoa korronte-hargune batera konektatzeko.



Baterien adierazlea

Bateriaren adierazleak telefonoaren bateria-maila erakusten du.

- Gorri keinukaria: Bateriaren kargatze-maila % 10etik beherakoa da.
- Gorria, piztuta, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateriaren kargatze-maila % 10etik beherakoa da.
- Horia, piztuta, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateriaren kargatze-maila % 10etik gorakoa da.
- Berdea, piztuta, keinurik egin gabe (kargatzean): Bateria erabat edo ia erabat kargatuta dago.




Bateriaren tenperatura altuegia bada, gailuaren kargatze-gaitasuna murriztu egingo da, hura babesteko.

Bateriari buruzko informazio garrantzitsua

- Bateria kargagarriek karga-kopuru mugatua izan ohi dute, eta baliteke noizbait aldatu beharra izatea. Bateriak oso gutxi irauten badizu, aldatu. Telefonoaren bateria integratua da, eta erabiltzaileak ezin du atera. Bateria ordeztzeko, jarri harremanetan zerbitzu-zentro baimendu batekin. Ez saiatu bateria ateratzen.
- Telefonoa denbora-tarte luze batez erabili baduzu, batez ere ingurune beroetan, baliteke telefonoak beroa botatzea. Telefonoa gehiegi berotzen bada, utzi erabiltzeari berehala, eta deskonektatu elikadura-iturritik, hoztu dadin. Ez eutsi telefonoari denbora luzez, erredurarik ez izateko.
- Erabili jatorrizko elikadura-egokigailua eta USB kablea telefonoa kargatzeko. Hirugarren batzuen osagarriak erabiliz gero, baliteke telefonoaren errendimendua txikitzea edo segurua ez izatea. Telefonoa kargatzen ari den bitartean, ez erabili, eta ez estali elikadura-egokigailua edo telefonoa beste objekturen batekin.
- Bateria osorik kargatzeko behar den denbora desberdina izan liteke giro-tenperaturaren eta bateriaren antzinatasunaren arabera.

- Telefonoaren bateria baxu badago, alerta-tonu bat egiten du, eta mezu bat bistaratzen da. Bateria-maila oso baxua bada, telefonoa itzali egiten da automatikoki.
- Bateria agortuta badago, baliteke bateria kargatzen hasi eta berehala telefonoa pizterik ez izatea. Hori normala da. Kargatu bateria minutu batzuek, telefonoa pizten saiatu aurretik.

Nola piztu eta itzali telefonoa

- Telefonoa pizteko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia.
 - Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, aukera-menua ikusteko, eta, gero, sakatu **Apagar > Aceptar**.
-  Telefonoa motel badabil, sistemak ez badu erantzuten edo gailua ohi bezala itzali ezin baduzu, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia 10 segundoz edo gehiagoz, telefonoa berrabiarazteko.


Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

Pantaila-blokeoari esker, ez da egiten nahi gabeko eragiketarik. Gainera, baimendu gabeko erabileretatik babesten du telefonoa. Hainbat eratarata blokea eta desblokea daiteke pantaila. Blokeo-pantailari widgetak gehitzeko aukera ere badago. Atal honetan, instalatuta datorren desblokeatzeko metodoa hartzen da adibide gisa.

Pantaila blokeatzea




- 1. metodoa: Sakatu pizteko/itzaltzeko tekla pantaila eskuz blokeatzeko.
- 2. metodoa: Denbora-tarte jakin batez inaktibo egon ondoren, telefonoak automatikoki blokeatzen du pantaila.




Pantaila blokeatzeko metodoa konfiguratzeko, sakatu , pantaila nagusian.

Pantailan bistaritzen den **General** fitxan, sakatu **Bloqueo pantalla**.


Pantaila desblokeatzea

1. Pantaila itzalita dagoela, sakatu , pizteko.
2. Arrastatu  irudia  irudiraino, pantaila desblokeatzeko.



Pantaila nagusia, sarrera

Pantaila nagusietan daude erabiltzailearen widget gogokoenak eta aplikazio guztiak. Aplikazio-zerrenda ezabatu egin da, aplikazioetarako sarbide zuzenagoa eta egokiagoa izateko. Hona hemen pantaila nagusi lehenetsia:



-
- 1 Egoera-barra: Jakinarazpenak eta ikonoak bistaratzeko. Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko.

 - 2 Bistaratzeko-eremua: Aplikazioen, karpeten eta widgeten ikonoak bistaratzeko.


 - 3 Pantailaren kokapenaren adierazlea: Pantailaren uneko kokapena adierazten du.

 - 4 Lasterbidea: Aplikaziorik ohikoenak erakusten ditu.


Nola aldatu pantaila nagusi batetik bestera

Pantaila nagusian lekurik gabe geratzen ari zara? Ez dago arazorik. Telefonoak aukera ematen du zenbait aplikazio eta widgetetarako pantaila nagusi gehiago sortzeko.

- Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera pantailaren gainean, pantaila nagusi batetik bestera joateko.







- Egin atximur pantailari bi hatzekin, pantaila nagusiaren miniaturako irudietara joateko. Sakatu miniaturako irudi bat pantaila nagusi horretara joateko.



Nola egin pantaila-irudi bat


Film bateko eszena interesgarri bat partekatu nahi duzu, edo joko batean lortutako puntuazioa erakutsi? Egin pantaila-irudi bat, eta partekatu.

Sakatu pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumena jaisteko botoia aldi berean, pantaila-irudi bat egiteko. Gero, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu , irudia partekatzeko. Lehenespenez, irudiak Pictures karpetan gordetzen dira, **Admin de archivos** atalean.




 Bestela, lerratu hatza behera, egoera-barran, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta sakatu  > , pantaila-irudi bat egiteko.

Pantaila automatikoki biratzea

Telefonoak inklinazio-sensore bat du. Webgune batean nabigatzean edo argazki bat ikustean telefonoa biratuz gero, pantailaren orientazioa automatikoki aldatuko da, horizontalean edo bertikalean jartzeko. Inklinazio-sensorean oinarritzen diren aplikazioak ere erabil daitezke, auto-lasterketetako jokoak, esaterako.


Pantaila automatikoki biratzeko funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, lerratu hatza egoera-barratik behera, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta sakatu .



Egoera-ikonoak

	Seinalearen intentsitatea		Ez dago seinalerik
	Ez dago zerbitzurik	G	GPRS sarea konektatuta
3G	3G sarea konektatuta	E	GSMa garatzeko datu-tasa hobetuen sarea (EDGE) konektatuta

	Abiadura handiko paketeetarako sarbide-sarea (HSDPA) konektatuta		Abiadura handiko paketeetarako sarbide-sare garatua (HSDPA+) konektatuta
	Desplazamendua		Hegazkin-modua aktibatuta
	Bluetootha aktibatuta		GPSaren kokapenaren datuak jasotzen
	Bibrazio-modua aktibatuta		Modu isila aktibatuta
	Alarmak aktibatuta		Kargatzen
	Bateria beteta		Bateria baxua
	Deia martxan		Dei galduak
	Mezu berriak		Mezu elektronikoen berriak
	Ahots-mezu berriak		Testua idazteko metodoa aukeratuta
	WiFi sarea erabilgarri		WiFi sare batera konektatuta
	Datua kargatzen		Datua deskargatzen
	Telefonoaren memoria beteta		Hurrengo gertaerak
	SIM txartela ez da aurkitu		Arazoa saioa hastean edo sinkronizatzean
	Datua sinkronizatzen		Errorea sinkronizatzean
	WiFi eremu eramangarria aktibatuta		Jakinarazpen gehiago
	VPN batera konektatuta		Entzungailuak konektatuta
	USBa arazteko modua konektatuta		USB bidezko ainguratzee-funtzioa aktibatuta


Nola ikusi azkena erabilitako aplikazioak

Luze sakatu  , azkena erabilitako aplikazioen zerrendara joateko. Gero, egin hau:


- Sakatu aplikazio bat, ireki dadin.
- Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera aplikazio batean, edo sakatu  , goiko eskuineko ertzean, alde batera uzteko.
- Sakatu  , zerrenda ezabatzeko.

Nola idatzi testua


Testua idazteko metodo ugari ditu telefonoak. Testua azkar idatz daiteke, pantailako teklatura erabilia.


- Sakatu testu-koadro bat, pantailako teklatura sartzeko.
- Pantailako teklatura ezkutatzeko, sakatu .

Testua idazteko metodoak konfiguratzea




1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todas** aukeran, sakatu **Idioma y teclado**.
3. **AJUSTES DE TECLADO** aukeran, sakatu testua idazteko metodo bat, konfiguratzeko.

Testua idazteko Huawei metodoa




1 Sakatu , Bloq Mayús aukeratzeko eta letrak maiuskuletatik eta minuskuletara eta alderantziz aldatzeko.





2 Sakatu  zenbakiak eta sinboloak sartzeko.

-
- 3 Sakatu  , ingelesa eta testua idazteko hizkuntza lehenetsia txandakatzeko.
-
- 4 Sakatu  , aurpegierak sartzeko.
-
- 5 Sakatu  , testua idazteko hizkuntza aldatzeko.
-

Testua idazteko Android metodoa








-
- Sakatu  , maiuskuletatik minuskuletara eta alderantziz aldatzeko.
- 1 • Luze sakatu edo sakatu bi aldiz azkar-azkar  tekla, maiuskulak aktibatzeko.
-
- 2 Sakatu  , zenbakiak eta sinboloak sartzeko.
-
- Sakatu  , ahots bidez testua idazteko modua erabiltzeko.
 - Luze sakatu  tekla, **Opciones entrada texto** menura sartzeko.
-
- Sakatu  zuriune bat sartzeko.
- 4 • Luze sakatu  tekla, testua idazteko beste metodo bat aukeratzeko.
-

- 5
- Sakatu  , puntu bat sartzeko.
 - Luze sakatu  tekla, ikurrak gehitzeko.
-
- 6
- Sakatu  , kurtsoarearen ezkerreko aldean dagoen karakterea ezabatzeke.
 - Luze sakatu  tekla, kurtsoarearen ezkerreko karaktereak azkar ezabatzeke.

Testu-edizioa

Telefonoak aukera ematen du erraz-erraz testua aukeratzeko, ebakitzeko, kopiatzeko eta itsasteko.



- **Seleccionar texto:** luze sakatu testua, pantailan  er dadin. Gero, arrastatu  eta  , testu gehiago edo gutxiago aukeratzeko, edo sakatu **Seleccionar todo**, testu-koadro bateko testu guztia aukeratzeko.
- **Cortar texto:** aukeratu testua, eta sakatu **Cortar**.
- **Copiar texto:** aukeratu testua, eta sakatu **Copiar**.
- **Pegar texto:** sakatu testua txertatu nahi duzun lekua, arrastatu  txertatze-puntua mugitzeko, eta sakatu **Pegar**, kopiatutako edo ebakitako testua itsasteko.



Telefonoa pertsonalizatzea

Pantaila nagusiaren estiloa aldatzea


Pantaila nagusi estandar eta oinarritzkoen estiloak onartzen ditu telefonoak.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. **Todas** aukeran, sakatu **Estilo de pantalla principal**.
3. Aukeratu **Simple** edo **Estándar**, eta sakatu **APLICAR**.

Gaiak konfiguratzea

Telefonoak zenbait gai eskaintzen ditu.

Gaiak aldatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Hautatu gai bat, eta sakatu **APLICAR**.

Gaiak pertsonalizatzea


1. Gai-aukeran, sakatu **PERSONALIZAR TEMA ACTUAL**.
2. Elementu-zerrendan, aukeratu aldatu nahi dituzun elementuak.

Pantaila-atzealdea aldatzea

1. Pantaila nagusian, luze sakatu eremu huts bat, **Pantalla de inicio establecida** elkarrizketa-koadroa bistaratu dadin pantailan.
2. Sakatu **Fondos de pantalla**
3. **Fondo de pantalla** pantailan, konfiguratu elementu hauek:
 - **Pantalla bloqueada:** telefonoaren blokeo-pantailari dagokion pantaila-atzealdea konfiguratzeko.

- **Pantalla de inicio:** pantaila nagusiaren atzealdea konfiguratzeko.
- **Agitar para cambiar:** pantaila nagusiaren atzealdea aldatzeko, telefonoa astintze hutsarekin.
- **Cambio aleatorio:** pantaila nagusiaren atzealdea ausaz aldatzeko.

Jakinarazpen-tonuak konfiguratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **DISPOSITIVO** aukeran, sakatu **Ajustes de sonido**
3. Sakatu **Tono de notificación**.
4. Aukeratu tonu-mota bat.




Kontu bat sortu ondoren soilik konfiguratu daitezke mezu elektronikoen jakinarazpen-tonua.

5. Aukeratu tonu bat.
6. Sakatu **Aplicar**

Pantaila desblokeatzeko metodoa konfiguratzea

Aurpegia ezagutuz desblokeatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Bloqueo pantalla > Desbloqueo facial**
4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, zeure aurpegiaren argazki bat ateratzeko.
Aurpegia ezagutuz desblokeatzea erabiliko du telefonoak desblokeatzeko metodo nagusi gisa.


5. Konfiguratu desblokeatzeko bigarren mailako metodo bat.

Aurpegia ezagutuz desblokeatzeko moduak ez badu zure aurpegia ezagutzen (argi gutxiegi dagoelako, adibidez), bete pantailan agertzen diren jarraibideak, bigarren mailako desblokeatzeko metodoa erabiltzeko.


Aurpegia ezagutuz desblokeatzea desaktibatzeko, erabili bigarren mailako desblokeatze-metodoa, **Bloqueo pantalla** pantailara sartzeko. Gero, aukeratu desblokeatzeko beste metodo bat.

Pantaila desblokeatzeko eredia


1. Pantaila nagusian, sakatu  eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Bloqueo pantalla > Patrón**
4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, desblokeatzeko eredu bat konfiguratzeko.

 Eredua gaizki marrazten baduzu bost aldiz jarraian, pantailak ez du erantzuko 30 segundoz. Edonola ere, tarte horretan larrialdi-deiak egin ahal izango dira.


Pantaila desblokeatzea PINa erabiliz

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Bloqueo pantalla > PIN**
4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, desblokeatzeko PIN bat konfiguratzeko.


PINa konfiguratu ondoren, idatzi egin beharko duzu telefonoaren pantaila desblokeatu nahi duzun bakoitzean.

 PINa gaizki sartzen baduzu bost aldiz jarraian, pantailak ez du erantzuko 30 segundoz. Edonola ere, tarte horretan larrialdi-deiak egin ahal izango dira.

Pantaila desblokeatzeko pasahitza

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Bloqueo pantalla > Contraseña**
4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, desblokeatzeko pasahitz bat konfiguratzeko.
5. Errepikatu pasahitza, eta sakatu **Aceptar**.


Pasahitza konfiguratu ondoren, idatzi egin beharko duzu telefonoaren pantaila desblokeatu nahi duzun bakoitzean.

-  Pasahitza gaizki sartzen baduzu bost aldiz jarraian, pantailak ez du erantzungo 30 segundoz. Edonola ere, tarte horretan larrialdi-deiak egin ahal izango dira.

Deiak

Markaketa adimenduna

Dei-prozedura estandarrez gainera, markaketa adimendunak aukera ematen du kontaktuak azkar aurkitzeko, haien izen edo zenbakiaren zati bat idatzita.


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sartu telefono-zenbaki bat edo kontaktuaren izenaren lehen letrak.



Ondoren, sartutako datuekin bat datozen telefonoko kontaktuak eta dei-erregistrazio zenbakiak bistaratuko dira pantaila batean.


3. Zerrendan, aukeratu deitu nahi duzun kontaktuak.
4. Deia amaitzeko, sakatu  .



Nola erantzun edo ez onartu deiak

 Dei bat jasotzen duzunean, sakatu bolumen-botoia, dei-tonua isilarazteko.





- Arrastatu  eskuinerantz, deiari erantzuteko.
- Arrastatu  ezkererantz, deia ez onartzeko.


- Arrastatu  gora, deia ez onartzeko eta deitzen ari den erabiltzaileari mezu bat bidaltzeko.

 Markagailuaren pantailan, sakatu  > **Ajustes de llamadas** > **Respuestas rápidas**, bidaliko den mezua editatzeko.




Deien erregistroa bistaratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu , azken deiak markagailuaren goian ikusteko.
2. Sakatu  > **Llamadas perdidas**, dei galduak ikusteko.

Dei bat martxan dela egin daitezkeenak



1

Sakatu  >  martxan dagoen deia atxikitzeko, eta sakatu beste behin , deiarri berriz ekiteko.

-
- 2 Sakatu  >  , hiruko dei bat egiteko. Hiruko deiak egiteko, ziurtatu dagokion zerbitzuan harpidetuta zaudela. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

 - 3 Sakatu  , bozgorailua erabiltzeko.

 - 4 Sakatu  , mikrofonoa isilarazteko edo aktibatzeko.

 - 5 Sakatu  , deia amaitzeko.

 - 6 Sakatu  , markagailua bistaratu dadin pantailan.


 - 7 Sakatu  >  , ohar bat bistaratu dadin pantailan.





 - 8 Sakatu  >  , kontaktu-zerrenda bistaratu dadin pantailan.
-

Dei-pantailara itzultzeko, lerratu hatza behera egoera-barratik, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta sakatu **Llamada actual**.

Nola egin konferentzia-deiak




Erraza da lagunekin, senitartekoeekin edo lankideekin konferentzia-deiak egitea. Egin edo erantzun dei bat, eta markatu beste zenbaki bat, bigarren solaskidea gehitzeko konferentzia-deiari.

-  Konferentzia-dei bat egin aurretik, ziurtatu zerbitzura harpidetuta zaudela. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Deitu lehen solaskideari.
2. Deia martxan jartzen denean, sakatu  >  , bigarren solaskideari deitzeko. Lehen solaskidea zain utziko da.
3. Bigarren deia martxan jartzen denean, sakatu  , konferentzia-deiari ekiteko.
4. Deian solaskide gehiago sartzeko, errepika itzazu 2. eta 3. urratsak.
5. Sakatu  , deia amaitzeko.

Nola erantzun hirugarren batzuen deiei


Hirugarren baten deiari erantzuteko, ziurtatu deiak zain uzteko funtzioa aktibatu duzula.

1. Dei bat martxan dela beste dei bat jasotzen baduzu, arrastatu  eskuinera, deirik berrienari erantzuteko eta bestea atxikitzeko.
2. Dei batetik bestera igarotzeko, sakatu  > .

Larrialdi-deiak

Larrialdietan, larrialdi-deiak egin ahal izango dituzu SIM txartela erabili gabe. Dena den, estaldura-eremuaren barruan egon beharko duzu.



1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Idatzi zure lurraldeko larrialdi-zenbakia, eta sakatu .

 Sare zelularren kalitateak, inguruneak, zerbitzu-hornitzaileen politikek eta tokiko lege eta arauak eragiten diete larrialdi-deiei. Ez egon inoiz telefonoaren mende soilik larrialdi-deiak egiteko.

Pertsonak

Ahaztu beti txartelak gordetzekoekin ibiltzeaz. Orain, kontaktuak administratzea eta biltegitratzea oso erraza da.

Kontaktuak sortzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  .
3. Hautatu kontu bat.
4. Idatzi kontaktuaren izena, telefono-zenbakia eta gainerako informazioa. Informazio gehiago sartzeko, ukitu **Añadir otro campo**.
5. Kontakua gordetzeko, sakatu **LISTO**.

Kontaktuak inportatzea eta esportatzea

Telefonoak .vcf formatuko kontaktuak soilik onartzen ditu. Kontakuak dituzten fitxategietarako formatu estandarra da. .vcf fitxategietan, kontaktuen izenak, helbideak, telefono-zenbakiak eta bestelako informazioa gorde daiteke.



Biltegitratze-gailu batean gordetako kontaktuak inportatzea

.vcf fitxategi batean gordetako kontaktuak inportatu egin daitezke biltegitratze-gailu batetik telefonora.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Gestionar contactos** > **Importar de almacenamiento**
3. Aukeratu .vcf fitxategi bat edo gehiago.
4. Sakatu **Aceptar**.



Bluetooth gailu batean gordetako kontaktuak inportatzea

.vcf fitxategi batean gordetako kontaktuak inportatu egin daitezke bluetooth gailu batetik telefonora.

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Gestionar contactos** > **Importar vía Bluetooth**
Telefonoak bluetootha gaitzen du, eta eskuragarri dauden bluetooth gailuak bilatzen ditu.
3. Sakatu gailuarekin lotu nahi duzun bluetooth gailua.
Bi gailuak lotu ondoren, telefonoak automatikoki inportatuko ditu kontaktuak beste gailutik.



Kontaktuak esportatzea

Egin zure kontaktuen segurtasun-kopia bat kanpoko biltegitratze-gailu batean, sistema eguneratzean edo erroreren baten ondorioz galtzen badira ere.

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Gestionar contactos** > **Exportar a almacenamiento**
Pantailan, elkarrizketa-koadro bat bistaratuko da, esportatutako .vcf fitxategiaren izena eta hura gordetako lekua azaltzen dituena.
3. Sakatu **Aceptar**.


Esportatu berri duzun .vcf fitxategia ikusteko, ireki **Admin de archivos**. Telefonoaren barne-biltegitratzeko jatorrizko direktorioan agertuko da fitxategia.

Nola kopiatu kontaktuak



1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Gestionar contactos** > **Copiar contactos**

3. Pantailan bistarutzen den aukera-menuan, aukeratu kopiatu nahi dituzun kontaktuak gordetzeko kokapena.
4. Sakatu kopiatu nahi duzun kontaktua, edo sakatu **TODOS**, kontaktu guztiak aukeratzeko.
5. Sakatu **COPIAR**, eta aukeratu kontaktuak kopiatu nahi dituzun kontua.



Kontaktuak bilatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
 2. Sakatu bilaketa-koadroa.
 3. Idatzi kontaktuaren izena edo inizialak.
Bilaketaren emaitzak pantailan bistaratuko dira, datuak sartu ahala.
- Adibidez, Lierni Orbegozo bilatzeko, idatzi **Lierni Orbegozo** edo **LO**.

Nola gehitu kontaktuak gogokoetara



1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Favoritos** fitxa.
2. Sakatu  .
3. Sakatu gogokoetan gehitu nahi duzun kontaktua, edo sakatu **TODOS**, kontaktu guztiak aukeratzeko.
4. Sakatu **AGREGAR**.

Kontaktuak ezabatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Eliminar contactos**.
3. Sakatu ezabatu nahi dituzun kontaktu guztiak, edo sakatu **TODOS**, kontaktu guztiak aukeratzeko.
4. Sakatu **ELIMINAR**.



5. Sakatu **Aceptar**.

Kontaktu bikoiztuak ezabatzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Gestionar contactos** > **Borrar contactos duplicados**

Kontaktuen erabilera partekatua





.vcf formatuko kontaktuak hainbat eratara parteka daitezke.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Contactos** fitxa.
2. Sakatu  > **Compartir contactos**.
3. Sakatu partekatu nahi duzun kontaktua, edo sakatu **TODOS**, kontaktu guztiak aukeratzeko.
4. Sakatu **COMPARTIR**, eta aukeratu datuak partekatzeko metodo bat, pantailan bistaritzen den aukera-menuan.

Kontaktu-taldeak sortzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Grupos** fitxa.
2. Sakatu  .
3. Sartu kontaktu-taldearen izena.
4. Sakatu **Agregar miembro**
5. Aukeratu kontaktu bat edo gehiago.
6. Sakatu **AGREGAR MIEMBRO**
7. Sakatu **LISTO**.

Kontaktu-taldeei mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Grupos** fitxa.
 2. Luze sakatu mezu bat edo mezu elektroniko bat bidali nahi diozun kontaktu-taldea.
 3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Enviar mensaje** edo **Enviar correo**.
-  Bestela, ireki kontaktu-taldea, eta, gero, sakatu  , mezu bat bidaltzeko, edo  , mezu elektroniko bat bidaltzeko.

Mezularitza

Testu-mezuak bidaltzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu  .
3. Sakatu hartzailearen testu-koadroa, eta idatzi kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia.

 Sakatu  , kontaktu gehiago aukeratzeko.



4. Idatzi mezua.
5. Sakatu **Enviar**.

Multimedia-mezuak bidaltzea

Multimedia-mezuak bidaltzen saiatu aurretik, ziurtatu datu-zerbitzua aktibatuta dagoela.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu  .
3. Sakatu hartzailearen testu-koadroa, eta idatzi kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia.


 Sakatu  , kontaktu gehiago aukeratzeko.

4. Sakatu  > **Añadir asunto**, eta idatzi mezuaren gaia.
5. Idatzi mezua.
6. Sakat  , aukeratu fitxategi erantsi mota, eta erantsi fitxategi bat.



 Mezuari fitxategi bat baino gehiago eransteko, sakatu **Presentación**.

7. Sakatu **Enviar**.

Mezuei erantzutea


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.
3. Sakatu testu-eremua, eta idatzi zure erantzuna.
4. Sakatu **Enviar**.

Mezuak bilatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu  > **Buscar**.
3. Idatzi mezua edo kontaktua, edo haien zati bat.
Bilaketa-irizpidearekin bat datozen emaitzak bistaratuko ditu telefonoak.


Mezuak administratzea

Nola kopiatu mezuk

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.
3. Luze sakatu kopiatu nahi duzun mezua.
4. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Copiar texto del mensaje**.
5. Luze sakatu mezua itsatsi nahi duzun eremua, eta aukeratu **Pegar**, pantailan bistaratzen den aukera-menuan.


Mezuak birbidaltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.
3. Luze sakatu birbidali nahi duzun mezua.
4. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Reenviar**.
5. Sakatu hartzailearen testu-koadroa, eta idatzi kontaktuaren izena edo telefono-zenbakia.


 Sakatu  , kontaktu gehiago aukeratzeko.

6. Sakatu **Enviar**.

Mezuak ezabatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, sakatu kontaktu baten izena edo telefono-zenbakia, hari dagokion elkarrizketa ikusteko.
3. Luze sakatu ezabatu nahi duzun mezua, eta sakatu **Eliminar mensaje**.

Mezu-hariak ezabatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Mezu-harien zerrendan, luze sakatu ezabatu nahi duzuna.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Eliminar mensajes**.

Posta elektronikoa

Negoio-bidaia batean zaudela lagun edo bezeroen mezu garrantzitsuak irakurri gabe utziko dituzun beldur zara? Erabili telefonoa mezu elektronikoa irakurri eta erantzuteko, edonon zaudela ere.

Nola gehitu POP3 edo IMAP posta elektronikoko kontu bat

POP3 edo IMAP posta elektronikoko kontu bat gehitzen denean, zenbait parametro konfiguratu behar dira. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan posta elektronikoko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Aukeratu posta elektronikoko kontu mota bat.
3. Idatzi zure **helbide elektronikoa** eta pasahitza, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, posta elektronikoa doikuntzak ezartzeko.

Posta elektronikoko kontua konfiguratu ondoren, **Entrada** pantaila bistaratuko da.

 Posta elektronikoko kontu gehiago gehitzeko, sakatu  > **Ajustes** > **Añadir cuenta**.




Nola gehitu Exchange kontuak

Enpresen barne-komunikazioetarako Microsoftek garatutako posta elektronikoko sistema bat da Exchange. Posta elektronikoko zerbitzuen hornitzaile batzuek partikularrentzat eta familientzat ere eskaintzen dituzte Exchange kontuak. Exchange kontu bat gehitzen denean, zenbait parametro konfiguratu behar dira. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan posta elektronikoko zerbitzu-hornitzailearekin.







1. Pantaila nagusian, sakatu .


2. Sakatu **Exchange**
 3. Idatzi zure **helbide elektronikoa, domeinuaren izena, erabiltzaile-izena** eta **pasahitza**. Gero, sakatu **Siguiente**.
 4. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei, posta elektronikoaren doikuntzak ezartzeko.
- Exchange kontua konfiguratu ondoren, **Entrada** pantaila bistaratuko da.

Mezu elektronikoa bidaltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Ireki posta elektronikoko kontu bat.
3. **Entrada** pantailan, sakatu  .
4. Idatzi hartzailea eta gaia, eta idatzi mezua. Erantsi fitxategiak, halakorik badu.
5. Bukatutakoan, sakatu  , mezua bidaltzeko.

Nola berrikusi mezu elektronikoa

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Ireki posta elektronikoko kontu bat.
3. **Entrada** pantailan, sakatu irakurri nahi duzun mezua.
4. Mezu bat irakurtzen ari zarela:
 - Erantzuteko, sakatu  .
 - Birbidaltzeko, sakatu  .
 - Ezabatzeko, sakatu  .
 - Aurreko mezu elektronikoa irakurtzeko, sakatu  .
 - Hurrengo mezu elektronikoa irakurtzeko, sakatu  .


- ❗ Baliteke denbora behar izatea mezu elektronikoak berreskuratzeko, sarearen egoeraren arabera. Sakatu beheko eskuineko ertzean dagoen  ikonoa, sarre-rako postontzia eguneratzeko.





Multimedia

Kamera

Denborak aurrera egin ahala, oroitzen batzuk betiko gorde nahi izaten dira. Halako uneak gordetzeko tresna ezin hobea da kamera. Argazkiak ateratzeko hainbat modu ditu, hala nola belleza eta sonrisa.

Bisorea



-
- Arrastatu kontrol lerragarria  aukeraraino, argazkiak ateratzeko modua aukeratzeko.
- 1
- Arrastatu kontrol lerragarria  aukeraraino, bideoa grabatzeko modua aukeratzeko.
-
- Sakatu  argazki bat ateratzeko.
 - Luze sakatu  tekla, argazki-segida bat ateratzeko.
-
- 2
- Sakatu miniatura, argazkiak ikusteko.
-
- 3

- Sakatu bisorearen barruan dagoen objektu bat, kamerak hura fokuratu dezan.

4

- Urrundu hatzak edo egin atximur pantailari irudia gerturatzeko edo urruntzeko.

5

Sakatu  aukera gehiago ikusteko.



6

Sakatu  flasha duen modua konfiguratzeko.




7

Sakatu  aurrealdeko eta atzealdeko kamerak txandakatzeko.

Nola atera argazki bat




1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Enkoadratu argazkian atera nahi duzun irudia. Kamerak automatikoki fokuratu du. Bisorearen koadroa berde jartzen denean, horrek esan nahi du kamerak fokuratu egin duela.
3. Sakatu .


Bideoak grabatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Enkoadratu grabatu nahi duzun irudia.
3. Sakatu  grabazioa hasteko.
4. Sakatu  grabazioa geldiarazteko.

Nola erabili HDR





Goi-maila dinamikoko teknologiak (HDR) hobetu egiten ditu eremurik argi eta ilunenetako xehetasunak, kalitate biziagoa lortzeko.


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Argazki-moduan, sakatu  > , HDR modura sartzeko.


3. Enkoadratu argazkian atera nahi duzun irudia. Kamerak automatikoki fokuratu du. Bisorearen koadroa berde jartzen denean, horrek esan nahi du kamerak fokuratu egin duela.
4. Sakatu .

Nola atera argazki panoramikoak





Zure kameraren ikuspen-angelua ez da paisaia zoragarriak hartzeko adinako zabala? Modu panoramiko da zuk behar duzuna. Modu horrekin, hainbat argazki lot ditzakezu, eta argazki bakarra balitz bezala konbinatu.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Argazki-moduan, sakatu  > , modu panoramikorara sartzeko.
3. Enkoadratu argazkian atera nahi duzun irudia.
4. Sakatu .
5. Mugitu telefonoa, pixkanaka, geziak adierazitako norabidean, argazki ugari ateratzeko.

 Bisorea gorri jartzen bada, argazkia ez da aterako. Baliteke hori gertatzea telefonoa azkarregi mugitu delako edo bisorearen irismenak gainditu egiten duelako irudi panoramikoaren muga.




6. Argazki panoramiko bat osatzeko nahikoa argazki ateratzen dituenean, telefonoak ez du argazki gehiago aterako.  sakatuta ere utzi egiten dio argazkiak ateratzeari. Kamerak automatikoki elkartzten ditu argazkiak, argazki panoramiko bat osatzeko.

Nola atera argazkiak audio-kontrolaren bidez

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu  >  > , audio-kontrolako modu bat hautatzeko.

3. Enkoadratu argazkian atera nahi duzun irudia. Telefonoak argazki bat aterako du giroko zarata dezibelio-maila jakin batera iristen denean.

Argazkiak gordetzeko kokapena konfiguratzeari


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Bisorean, sakatu  >  **Guardar en**
3. Gero, egin hau:
 - Sakatu **Tarjeta SD**, argazkiak edo bideoak microSD txartelean gorde daitezela lehenespenez.
 - Sakatu **Almacenamiento interno**, argazkiak edo bideoak barne-memorian gorde daitezela lehenespenez.


Galeria

Oroitzapen onen kutxa pertsonala da **Galería**.



Argazkiak edo bideoak ikustea

Galería aukeran, album bereizietan gordetzen dira argazkiak eta bideoak.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu ikusi nahi duzun albuma.
3. Sakatu argazki bat edo bideo bate, pantaila osoan ikusteko.








-  Argazki bat ikustean, egin atximur pantailari hatzekin, irudia urruntzeko, edo bereizi, hurbiltzeko.

Diapositiba-aurkezpen bat erreproduzitzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu album bat.
3. Sakatu  > **Presentación**, album bateko argazkiak diapositiba-aurkezpen batean erreproduzitzeko.
4. Sakatu pantaila, diapositiba-aurkezpena gelditzeko.


Argazkiak editatzea

Argazkiak are ederragoak ikus daitezen, telefonoak aukera ematen du argazkietako begi gorriak ezabatzeko, argazkiak ebakitzeko eta bestelako hainbat efektu aplikatzeko.




1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu editatu nahi duzun argazkia.
3. Sakatu  > **Editar**. Aukera hauek dituzu:
 - Sakatu , iragazki bat aukeratzeko.
 - Sakatu , argazkia biratzeko edo ebakitzeko.
 - Sakatu , argazkia argitzeko edo iluntzeko.
 - Sakatu , argazkiari marko bat gehitzeko.
4. Sakatu .

Argazkiak biratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu biratu nahi duzun argazkia.
3. Sakatu  > **Girar a la izquierda** edo **Girar a la derecha**



 Pantaila automatikoki biratzeko funtzioa ere gaitu daiteke, telefonoak automatikoki doitu dezan pantailaren orientazioa gailua biratzen denean.

Nola ebaki argazkiak

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu ebaki nahi duzun argazkia.
3. Sakatu  > **Editar**.
4. Sakatu  > **Recortar**. Hauek egin ditzakezu:
 - Irudia arrastatu, haren kokapena aldatzeko.
 - Irudiaren ertzak arrastatu, tamaina doitzeko.



5. Sakatu  .

Argazkiak ezabatzea




1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu ezabatu nahi duzun argazkia.
3. Sakatu  .
4. Sakatu **Borrar**.

Argazki edo bideoen erabilera partekatua

Zure argazkirik onenak partekatu nahi dituzu, edo zure zakurrak egin berri duen gauza dibertigarriren bat erakutsi nahi duzu? Partekatu zure argazkiak eta bideoak posta elektroniko bidez, bluetooth bidez...

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu partekatu nahi duzun argazkia edo bideoa.
3. Sakatu  .
4. Aukeratu erabilera partekatuko metodo bat, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei.

Argazki bat pantaila-atzealde gisa konfiguratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Hautatu pantaila-atzealde gisa definitu nahi duzun argazkia.
3. Sakatu  > **Establecer como** > **Fondo de pantalla**
4. Arrastatu irudiaren ertzak, tamaina doitzeko.
5. Sakatu  .

Musika


Nola gehitu abestiak

Kopiatu abestiak zure telefonoan, eta eskuratu audio-kalitate bikaina une oro. Gehitu abestiak pauso hauek emanez:

- Kopiatu abestiak zure ordenagailuan, USB kable bat erabiliz.
- Deskargatu abestiak Internetetik.
- Kopiatu abestiak bluetooth gailuetatik.
- Kopiatu beste gailu batzuetako abestiak, WiFi konexioen bidez.


Nola entzun musika

1. Pantaila nagusian, sakatu **Google Apps** > 🎧 .
2. Sakatu erreproduzitu nahi duzun abesti-kategoria.
3. Sakatu album baten estalkia, hango abestiak erreproduzitzeko.
4. Lerratu hatza gora, pantailaren beheko aldetik, erreprodukzio-pantaila ikusteko.



1 Sakatu miniaturako ikuspegia, abesti-zerrendara itzultzeko.


2 Arrastatu kontrol lerragarria, erreprodukzioa kontrolatzeko.


- Sakatu  , erreprodukzio-moduak aukeratzeko (erreprodukzio-zerrenda errepikatzea, uneko abestia errepikatzea, ordenan erreproduzitzea).



- Sakatu  gelditzeko, eta  berriz martxan jartzeko.

3 • Sakatu  , aurreko abestira joateko.



- Sakatu  , hurrengo abestira joateko.

- Sakatu  , ausazko erreprodukzioa gaitzeko edo desgaitzeko.



4 Sakatu  , aukera-menura sartzeko. Han ikus dezakezu albumari edo abestiari buruzko informazioa.

 Abesti bat erreproduzitzen ari dela, sakatu  erreprodukzio-pantailatik irteteko abestia eten gabe. Musika erreproduzitzeko pantailara itzultzeko, ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu erreproduzitzen ari den abestia.




Nola gehitu abestiak erreprodukzio-zerrenda bati

1. Pantaila nagusian, sakatu **Google Apps** >  .
2. Hautatu erreprodukzio-zerrendara gehitu nahi dituzun abestiak.
3. Sakatu  > **Añadir a playlist**
4. Sakatu **Nueva playlist** edo erreprodukzio-zerrenda bat, eta bete pantailako jarraibideak, abestiak gehitzeko.

Nola entzun erreprodukzio-zerrendak

1. Pantaila nagusian, sakatu **Google Apps** >  .
2. Sakatu , menu nagusira joateko.
3. Sakatu **Listas de reproducción**
4. Sakatu entzun nahi duzun erreprodukzio-zerrenda.
5. Sakatu  > **Reproducción aleatoria**

Eliminación de listas de reproducción


1. Pantaila nagusian, sakatu **Google Apps** >  .
2. Sakatu , menu nagusira joateko.
3. Sakatu **Listas de reproducción**
4. Sakatu ezabatu nahi duzun erreprodukzio-zerrenda.
5. Sakatu  > **Eliminar**
6. Sakatu **Aceptar**.


Interneteko konexioa

Datu mugikorren konexioa

Telefonoan SIM txartel bat sartu eta lehen aldiz piztu ondoren, gailuari alta emango zaio automatikoki erabiltzailearen zerbitzu-hornitzailearen datu-zerbitzuetan.




Datu-zerbitzua gaitzea



1. Pantaila nagusian, lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko.
2. Sakatu  , telefonoaren datu-zerbitzua gaitzeko.

 Ez badaukazu Internetera sartu beharrik, desgaitu datu-zerbitzua, bateria aurrezteko eta datuen kontsumoa murrizteko.

APNak sortzea

Sarbide Puntuaren Izena (APN) parametroa beharrezkoa da telefonoa sare mugikorrera konekta dadin edo multimedia-mezuak bidal ditzan. Oro har, automatikoki konfiguratzeko da SIM txartela telefonoan sartu ondoren. Telefonoa ezin bada konektatu sare mugikorrera automatikoki konfiguratutako APNarekin, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, parametro espezifikoak eskuratu eta APN berri bat sortzeko.


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. **Todas** aukeran, sakatu **Redes móviles**
3. Sakatu **APN**.
4. Sakatu  > **APN nuevo**
5. Sartu sarbide-puntuaren izena eta beste parametro batzuk.
6. Sakatu  .


 APN zerrendan, sakatu  > **Valores predeterminados**, APNaren informazioa berrezartzeko.

Nola ezarri WiFi konexioa



Zure etxean telefonoa erabiltzen duzunean, zure bideratzailean sortutako haririk gabeko sarbide-puntura konekta zaitzke. Baliteke leku publiko batzuetan ere (aireportuetan eta liburutegietan, esaterako) WiFi sareak eskuragarri izatea.

WiFi sare batera konektatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu Wi-Fi etengailua, funtzioa aktibatzeko.
3. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu **Wi-Fi**.
Telefonoak erabilgarri WiFi sareen zerrenda bilatuko eta erakutsiko du.
4. Aukeratu zein WiFi saretara konektatu nahi duzun, eta sakatu **Establecer**.
WiFi sare zifratu batera sartzeko, idatzi pasahitza, eskatzen zaizunean.


 WiFi bidezko konexioa eta datu mugikorrena badaude gaituta, telefonoak WiFi sarera konektatuko da, ahal dela. WiFi konexioa eskuragarri ez badago, datu mugikorren konexioa hautatuko du telefonoak automatikoki.


WPS PINaren erabilera

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu Wi-Fi etengailua, funtzioa aktibatzeko.
3. WiFi sareen zerrendan, sakatu .
4. Sakatu **Introducir PIN de WPS**
Telefonoak PIN bat sortuko du.
5. Haririk gabeko sarbide-puntuaren gailuan, sartu PINa.

Haririk gabeko sarbide-puntua

Beste gailu batzuentzako haririk gabeko sarbide-puntu gisa ere funtzionatzen du telefonoak, datu mugikorren konexioaren erabilera partekatuaren bitartez.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu **Más...**
3. Sakatu **Anclaje a red y zona Wi-Fi > Configurar zona Wi-Fi**.
4. Idatzi haririk gabeko sarbide-puntuaren izena.
5. Aukeratu zifratze-modu bat.

 WPA2PSK zifratze-modua erabiltzea gomendatzen da, WiFi sarea hobeto babes-
teko.

6. Konfiguratu haririk gabeko sarbide-puntuaren pasahitza.
Beste gailu batzuk zure telefonoaren sarera sartzen saiatzen direnean, pasahitz hori idatzi beharko dute.
7. Aukeratu **Zona Wi-Fi portátil** kontrol-laukia.
8. Erabili nahi duzun gailuan, bilatu telefonoaren WiFi sarea, eta konektatu hara.

Datuen erabilera partekatua

Bluetootha

Telefonoa bluetootharekin bateragarria da; beraz, beste bluetooth gailu batzuekin konekta daiteke datuak haririk gabe transmititzeko. Bluetootha erabiltzeko, beste bluetooth gailu batzuetatik 10 bat metrora (33 oinera) egon behar duzu.

Bluetooth funtzioa aktibatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu **Bluetooth**.

Bluetooth funtzioa aktibatuta badago, telefonoaren izena bistaratuko da **Bluetooth** pantailaren goiko aldean. Sakatu izena, telefonoaren ikusgarritasuna hobetzeko.

-  Telefonoaren izena aldatzeko, sakatu  > **Cambiar nombre del teléfono**. Bukatutakoan, sakatu **Cambiar nombre**, aldaketak gordetzeko.

Nola lotu telefonoa beste bluetooth gailu batzuekin

Beste bluetooth gailu batekin datuak trukatzeko, gaitu bluetootha bi gailuetan, eta lot itzazu.


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **TODOS** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu **Bluetooth**.
3. Detektatutako bluetooth gailuen zerrendan, sakatu haietako bat, eta bete pantailan ageri diren jarraibideak, zure telefonoarekin lotzeko.

Lotutako gailu batetik deskonektatzeko, **DISPOSITIVOS SINCRONIZADOS** atalean, sakatu  > **Desincronizar**

-  Ezin bada ezarri telefonoaren eta beste gailuaren arteko konexioa, baliteke bateagarriak ez izatea.

Fitxategien erabilera partekatua, bluetooth bidez

Bluetoothak aukera ematen du senitarteko eta lagunei argazkiak, bideoak eta bestelakoak bidaltzeko, erraz-erraz. Fitxategiak beste bluetooth gailu batzuekin parteka daitezke Interneteko konexiorik izan gabe ere.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu bidali nahi duzun fitxategia.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Compartir > Bluetooth**.
4. Detektatutako bluetooth gailuen zerrendan, aukeratu gailu bat.

Fitxategiak jasotzea bluetooth bidez

1. Telefonoak fitxategiak transferitzeko eskaera bat jasotzen duenean, ireki jakinarazpen-panela.
2. Sakatu **Compartir con Bluetooth: archivo entrante**, fitxategiak jasotzeko elkarriketa-koadroa ikusteko.
3. Sakatu **Aceptar**, fitxategia jasotzen hasteko.


Fitxategi bat jasotzen duzunean, jakinarazpen bat jasoko duzu, transferentziare ondo egin dela adierazten duena. Ireki jakinarazpen-panela, jakinarazpena irakurtzeko. Lehenespenez, jasotako fitxategiak **bluetooth** karpetan gordetzen dira, **Admin de archivos** atalean.

Wi-Fi Direct

Wi-Fi Direct funtzioarekin, erraz konekta ditzakezu bi gailu, elkarri datuak transmititzeko edo datuen erabilera partekatua egiteko.

Bi gailu konektatzea WiFi Direct erabiliz

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todos** fitxa.
2. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu Wi-Fi etengailua, funtzioa aktibatzeko.

3. WiFi sareen zerrendan, sakatu  .
Telefonoak eskuragarri dauden gailuak bilatu eta erakutsiko ditu.
4. Hautatu gailu bat.

Fitxategiak bidaltzea WiFi sare baten bidez

1. Luze sakatu bidali nahi duzun fitxategia.
2. Pantailan bistarutzen den aukera-menuan, hautatu **Compartir**.
3. Sakatu **Wi-Fi Directo**
Telefonoak eskuragarri dauden gailuak bilatu eta erakutsiko ditu.
4. Hautatu fitxategia bidali nahi diozun gailua.



Pauso espezifikoak desberdinak izan litezke, fitxategi-motaren arabera.

Telefonoa ordenagailu batera konektatzea

Telefonoa ordenagailu batera konektatzen baduzu USB kable bat erabiliz, jakinarazpen bat bistaratuko zaizu telefonoan, konexio-mota hautatzeko eskatuko dizuna.

MTP modua

Multimedia transferitzeko protokoloa (MTP) erabiltzen da telefono baten eta ordenagailu baten artean multimedia-fitxategiak transferitzeko, hala nola irudiak, abestiak eta bideoak. MTP modua Windows Media Player 10 eta bertsio berriagoekin soilik da bateragarria.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. **Conexión de ordenador USB** pantailan, aukeratu **Dispositivo multimedia (MTP)**.
Telefonoaren kontrolagailua automatikoki instalatuko da ordenagailuan.
3. Kontrolagailua instalatu ondoren, bete ordenagailuaren pantailan bistarutzen diren jarraibideak, fitxategiak ikusteko edo transferitzeko.

PTP modua

Irudiak transferitzeko protokoloa (PTP) da ordenagailura fitxategiak eta bideoak transferitzeko beste metodo bat.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. **Conexión de ordenador USB** pantailan, aukeratu **Cámara (PTP)**.
Telefonoaren kontrolagailua automatikoki instalatuko da ordenagailuan.
3. Kontrolagailua instalatu ondoren, bete ordenagailuaren pantailan bistaritzen diren jarraibideak, fitxategiak ikusteko edo transferitzeko.

Biltegitatze masiboko modua

Biltegitatze masiboko moduan, biltegitatze masiboko USB gailu gisa erabil daiteke telefonoa, eta fitxategiak transferitu telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. **Conexión de ordenador USB** pantailan, aukeratu **Dispositivo de almacenamiento USB**.
Telefonoaren kontrolagailua automatikoki instalatuko da ordenagailuan.
3. Biltegitatze masiboko USB gailu gisa identifikatuko du telefonoa ordenagailuak.
Gero, fitxategiak transferitu ahal izango dituzu telefonoaren eta ordenagailuaren artean.





Fitxategiak transferitzen bukatu ondoren, atera gailua ordenagailutik modu seguruan, eta deskonektatu USB kabletik, datuak galdu edo kaltetu ez daitezen.

Fitxategi-administratzailea

Admin de archivos aplikazioak aukera ematen du telefonoaren barne-memorian eta microSD txartelean gordetako fitxategiak eta aplikazioak administratzeko. Aplikazio horrekin, fitxategiak ikusi, sortu, editatu, ezabatu, mugitu, artxibatu, konprimatu eta deskonprimatu ditzakezu.



Karpetak sortzea

Karpetak sor ditzakezu telefonoaren barne-memoriako edo microSD txartelean gordetako fitxategiak eta aplikazioak ahalik eta ondoen administratzeko.


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu **Local** edo **Tarjeta SD**
3. Sakatu  > **Carpeta nueva**
4. Pantailan bistaritzen den elkarriketa-koadroan, idatzi karpeta berriaren izena.
5. Sakatu **Guardar**

Fitxategiak bilatzea

Estresak jota zaude fitxategi gehiegi dituzulako? Bilaketa-funtzioarekin, nahi duzun hori aurkitu dezakezu denbora oso gutxian.


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu **Local** edo **Tarjeta SD**
3. Sakatu  > **Buscar**.
4. Idatzi fitxategiaren izen osoa edo haren zati bat. Bat datozen emaitzak bistaratuko dira pantailan.

Nola kopiatu, ebaki eta itsatsi fitxategiak

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu kopiatu edo itsatsi nahi duzun fitxategia.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Copiar** edo **Cortar**.
4. Aukeratu fitxategia itsatsi nahi duzun kokapena.
5. Sakatu **PEGAR**.


Fitxategiak konprimatzea eta deskonprimatzea

Gailuak aukera ematen du fitxategiak zip formatuan konprimatzeko, leku gutxiago har dezaten. Bestalde, .zip eta .rar fitxategiak deskonprimatzeko ere balio du.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu konprimatu nahi duzun fitxategia edo karpeta.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Comprimir**.
4. Aukeratu fitxategi konprimatua gorde nahi duzun bidea, eta idatzi haren izena.
5. Sakatu **Aceptar**.


Fitxategi bat deskonprimatzeko, luze sakatu, eta hautatu **Extraer**, pantailan bistaratzen den aukera-menuan.

Fitxategien izenak aldatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu izena aldatu nahi diozun fitxategia.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Cambiar nombre**.
4. Pantailan bistaratzen den elkarrizketa-koadroan, idatzi fitxategiaren izen berria

5. Sakatu **Aceptar**.

Fitxategiak ezabatzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu ezabatu nahi duzun fitxategia.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Eliminar**.
4. Sakatu **Aceptar**.

Fitxategi edo karpitetarako lasterbideak sortzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Luze sakatu lasterbidea egin nahi diozun fitxategia edo karpeta.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Accesos directos del escritorio**.

Memoriaren egoera begiratzea

Fitxategi astunak telefonoaren barne-memorian edo microSD txartelean gorde aurretik, ziurtatu nahikoa leku dagoela eskuragarri.


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu  > **Almacenamiento**
3. **Ajustes de almacenamiento** pantailan ikusiko duzu zenbat leku dagoen eskuragarri telefonoaren barne-memorian edo microSD txartelean.



Aplikazioak administratzea



Aplikazioak deskargatzea

Googleren **Play Store** dendak aplikazioen aukera zabala eskaintzen du. Telefonoa ordenagailu batera konektatuta ere transferitu ditzakezu aplikazioak.

Aplikazioak instalatzea


 Deskargatzeko iturri nagusi gisa **Play Store** erabiltzea gomendatzen da. Baliteke beste iturri batzuetako hirugarren batzuen aplikazioak ez izatea bateragarriak telefonoarekin.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herram.** > .
2. Hautatu instalatu nahi duzun aplikazioa.
3. Sakatu  > **Instalar.**
4. Sakatu **Listo.**

 Instalazioa egitean, baliteke **Instalación bloqueada** mezua bistaratzea pantailan. Irakurri arretaz mezu hori. Instalazioa egiten jarraitu nahi baduzu, sakatu **Ajustes**, eta markatu **Orígenes desconocidos** kontrol-laukia, hirugarren batzuen aplikazioak instalatzea onartzeko. Gero, sakatu , jarraitzeko.

Aplikazioak bistaratzea


Telefonoak aukera ematen du gailuan bertan instalatutako aplikazioei buruzko informazio xehatua ikusteko.

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **APLICACIONES** aukeran, sakatu **Administrar aplicaciones.**
3. Lerratu hatza **Todos** aukeraraino.

4. Aukeratu ikusi nahi duzun aplikazioa.

Aplikazioak desinstalatzea

Izan nahi ez dituzun aplikazioak desinstalatu egin ditzakezu, telefonoan eskuragarri dagoen memoria handitzeko.


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **APLICACIONES** aukeran, sakatu **Administrar aplicaciones**.
3. Lerratu hatza **Todas** aukeraraino.
4. Hautatu desinstalatu nahi duzun aplikazioa.
5. Sakatu **Desinstalar** > **Aceptar**.



Aurrez instalatutako aplikazio batzuk ezin dira desinstalatu.

Nola ezabatu aplikazioen cache memoria

Ezabatu aplikazioen cache memoria, telefonoaren memorian lekua egiteko.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **APLICACIONES** aukeran, sakatu **Administrar aplicaciones**.
3. Lerratu hatza **Todas** aukeraraino.
4. Hautatu **Borrar caché**.

Telefonoaren kudeatzailea

Telefonoaren kudeatzaileari buruz

Telefonoaren kudeatzailea sistemaren aplikazio bat da: aukera ematen du telefonoa hobeto babesteko eta kudeatzeko. Telefonoaren kudeatzailearekin, sistemaren errendimendua optimizatzen da, telefonoaren diagnostikoa eginez, nahi ez diren fitxategiak ezabatuz... Aukera ematen du, halaber, aplikazioetarako sarbide-baimenak kudeatzeko, datu pertsonalak eta pribatuak seguru egon daitezen.



Telefonoaren azeleragailua

Telefonoa motel badabil, baliteke aplikazio gehiegi izatea eta memoria asko kontsumitzea. Optimizatu sistema, telefonoaren azeleragailuaren bidez.


1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** > .
2. Sakatu **Acelerador del teléfono**
3. Aukeratu nahi ez dituzun aplikazioak, eta sakatu **CERRAR**.

Memorian espazioa libratzekoa


1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** > .
2. Sakatu **Liberador de espacio**
3. Sakatu **Análisis inteligente**, eta libratu telefonoaren biltegitartzeko lekua, analisieren emaitzaren arabera.

 **Liberador de espacio** pantailan, sakatu , telefonoak aldi berean behin (denbora-tartea zehaztu egin daiteke) cache memoria, miniaturako ikuspegiak, memoria eta abar garbitu ditzan.

Jazarpen-iragazkia


1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** >  .
2. Sakatu **Filtro de acoso**.
3. **Filtro de acoso** pantailan, egin hau:
 - Sakatu **Llamadas** edo **Mensajes**, deiak edo blokeatutako mezuak ikusteko.
 - Sakatu **Lista negra** > **AÑADIR CONTACTOS**, zerrenda beltzari beste zenbaki bat gehitzeko.

Energia aurrezte


1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** >  .
2. Sakatu **Ahorro de energía**.
3. **Ahorro de energía** pantailan, egin hau:
 - Desaktibatu erabili behar ez dituzun funtzioak, energia aurrezteko.
 - Sakatu **Control de energía**, eta optimizatu eskuz energia-plana, analisiaren emaitzen arabera.
 - Sakatu **Inteligente**, modu adimenduna gaitzeko. Telefonoak energia aurrezten du, eta, aldi berean, funtzio guztiak erabil daitezke, murrizketarik gabe.
 - Sakatu **Duración**, erresistentzia-modua gaitzeko eta telefonoak ahalik eta energia gutxien kontsumitzeko.
 - Sakatu **Normal**, modu arrunta gaitzeko.

Jakinarazpen-kudeatzailea

Aplikazio batzuek era guztietako jakinarazpenak bidal ditzakete telefonora. Jakinarazpen-kudeatzaileak aukera ematen du jakinarazpenak murrizteko arauak konfiguratze-ko, behar ez den informaziorik ez jasotzeko.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** > .
2. Lerratu hatza ezkerrera, pantailaren beheko aldean, eta sakatu **Admin. de notificaciones**.
3. **Admin. de notificaciones** pantailan, egin hau:
 - Sakatu **Reglas**, jakinarazpen-panelera jakinarazpenak bidal ditzaketen aplikazioak ikusteko eta aplikazioetako bidalketa-baimenak konfiguratzeko.
 - Blokeatutako jakinarazpenak ikusteko, sakatu **Registro**.

Hasiera-kudeatzailea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** > .
2. Lerratu hatza ezkerrera, pantailaren beheko aldean, eta sakatu **Administrador de inicio**.
3. **Administrador de inicio** pantailan, egin hau:
 - Aukeratu aplikazio bat, sistema martxan jartzean automatikoki exekuta dadin.
 - Utzi aplikazio bat aukeratu gabe, sistema martxan jartzean exekutatu ez dadin.


Oinarrizko aplikazioak

Hainbat tresna erabilgarri eskaintzen ditu telefonoak, hala nola **Calendario**, **Reloj** eta **Calculado.**, antolatuta egon zaitezten.

Segurtasun-kopia

Copia de seguridad aukerarekin, datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egin ditzakezu, eta sistema eguneratu edo berrabiarazi ondoren berrezarri.

Memoria lokaleko datuen segurtasun-kopia

1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** >  .

2. Sakatu **Copia de seguridad en tarjeta SD**.

3. Hautatu segurtasun-kopiak egiteko datuak.


4. Sakatu **COPIA SEGURIDAD...**

5. Idatzi pasahitza, eskatzen zaizunean.

6. Sakatu berriz **ACEPTAR**.

Lehenespenez, segurtasun-kopiako fitxategiak **HuaweiBackup** karpetan gordetzen dira, **Admin de archivos** atalean.

Memoria lokaleko datuak berrezartzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Gestión** >  .

2. Sakatu **Restablecer desde tarjeta SD**.

3. Segurtasun-kopiako fitxategien zerrendan, aukeratu berrezarri nahi dituzun fitxategiak.

4. Idatzi segurtasun-kopiaren pasahitza.



5. Sakatu **ACEPTAR**.

6. Sakatu **RESTABLECER**


Egutegia

Calendario aplikazioa laguntzaile pertsonal bat da, eta aukera ematen du gertaerak administratzeko eta antolatzeko, bai eta gertaera garrantzitsu guztien jakinaren gainean egoteko ere.

Gertaerak sortzea



1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu  .
3. Idatzi gertaeraren xehetasunak, adibidez, izena, ordua eta kokapena.
4. Sakatu **GUARDAR**

Gertaerak ikustea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu goiko ezkerreko ertzeko data, urteko, hilabete, asteko, eguneko eta agendako ikuspegiak txandakatzeko. Agendaren ikuspegian, egutegiko gertaera guztiak bistaratzen dira.

Gertaeren erabilera partekatua



Gertaera bat zure senitarteko eta lagunekin partekatzeko hainbat modu dituzu, adibidez, bluetootha erabiltzea.

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Ireki partekatu nahi duzun gertaera.
3. Sakatu  > **Enviar evento**.
4. Aukeratu erabilera partekatuko metodo bat, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei.

Erlojua


Relej aplikazioak aukera ematen du munduko ordua ikusteko, kronometroa edo tenporizadorea erabiliz denbora neurtzeko edo goizean jaikitzeke alarmak konfiguratzeko.

Nola gehitu alarmak



1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Alarma** fitxa.
2. Dei-zerrendan, sakatu  .
3. Konfiguratu alarmaren ordua, txirrinaren tonua, errepikatzeke maiztasuna eta abar.
4. Sakatu **LISTO**.

 Telefonoa itzalita badago ere, alarmek jo egingo dute.

Alarmak ezabatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Alarma** fitxa.
2. Alarma-zerrendan, luze sakatu ezabatu nahi duzun alarma.
3. Pantailan bistaratzen den aukera-menuan, hautatu **Eliminar alarma**.
4. Sakatu **Aceptar**.

Alarmen doikuntzak

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Alarma** fitxa.
2. Alarma-zerrendan, sakatu  > **Ajustes**.
3. Alarmen doikuntzen pantailan, konfiguratu alarmaren txirrina, errepikapenaren iraupena eta alarmak jotzea bolumen-botoiak izango duen funtzioa.




Eguraldia

El tiempo aplikazioa erabiliz, munduko edozein hiritako eguraldiari buruzko informazio berriena ikus dezakezu, eta senitarteko eta lagunekin partekatu.

-  **El tiempo** aplikazioa erabili aurretik, aktibatu GPSa eta telefonoaren datu-zerbitzua.

Nola gehitu hiriak



Gehitu interesatzen zaizkizun hiriak **El tiempo** aplikazioari, eguraldiari buruzko informazio guztia denbora errealean ikusteko.




1. Pantaila nagusian, sakatu **Herram.** >  .
2. Sakatu  >  .

-  Uneko hiriaz gainera, beste bederatzi hiri gehitu daitezke.

3. Idatzi hiriaren izena.
Bat datozen hiriak pantailan bistaratuko dira.
4. Aukeratu gehitu nahi duzun hiria.




Eguraldiari buruzko informazioa eguneratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herram.** >  .
2. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera, zein hiritako eguraldiari buruzko informazio eguneratua ikusi nahi duzun aukeratzeko.
3. Sakatu  , eguraldiari buruzko informazioa eguneratzeko.

-  **El tiempo** aplikazioaren eguneraketa automatikoko modua konfiguratzeko aukera ere badago. Sakatu  >  , hautatu **Actualización automática**, eta konfiguratu **Intervalo de actualización**. Konfiguraturako maiztasunarekin eguneratuko du telefonoak eguraldiari buruzko informazioa.

Eguraldiari buruzko informazioaren erabilera partekatua

Telefonoak aukera ematen du eguraldiari buruzko informazioa testu-mezu bidez bidaltzeko, senitarteko eta lagunei eguraldi-aldaketen berri emateko.


1. Pantaila nagusian, sakatu **Herram.** >  .
2. Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera, zein hiritako eguraldiari buruzko informazio eguneratua partekatu nahi duzun aukeratzeko.
3. Sakatu  , mezu-pantailara sartzeko.
4. Gero, egin hau:
 - Sartu telefono-zenbaki bat.
 - Sakatu  , kontaktu bat hautatzeko.
5. Sakatu **Enviar**, eguraldiari buruzko informazioa hartzaileari bidaltzeko.

Doikuntzak

Hegazkin-modua aktibatzea eta desaktibatzea

Bete beti hegazkin-konpainietako arauak. Hegazkin-operadoreak baimena ematen badu, hegazkin-moduan erabil dezakezu telefonoa hegaldiak irauten duen bitartean. Hegazkin-moduan, telefonoaren haririk gabeko funtzioak desaktibatu egiten dira, baina musika entzuteko edo jokoetan ibiltzeko erabil daiteke gailua.

Hauetakoren bat egin behar duzu **hegazkin-modua** desaktibatzeko


- Luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia. Pantailan bistaritzen den aukera-menuan, hautatu **Modo avión**.
- Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa. **CONEXIONES INALÁMBRICAS Y REDES** atalean, sakatu **Modo avión**.

Hegazkin-modua aktibatzen denean, ✈ bistaratuko da egoera-barran.


Tonuen doikuntzak

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **DISPOSITIVO** aukeran, sakatu **Ajustes de sonido**
3. Doikuntza-pantailan, egin hau:
 - Sakatu **Volumen**, eta arrastatu kontrol lerragarriak, musikaren, dei-tonuaren, mezu-tonuaren eta abarren bolumena konfiguratzeko.
 - Sakatu **Vibración**, eta konfiguratu telefonoak bibra dezan nahi duzun dei bat jasotzean, mezu bat jasotzean, mezu elektronikoa bat jasotzean edo gertaera bat hurbiltzean, besteak beste.
 - Sakatu **Modo silencio**, modu isila aktibatzeko edo desaktibatzeko.
 - Sakatu **Tono de notificación**, tonu bat aukeratzeko mezuatarako mezu elektronikotarako, gertaeratarako eta abarrerako.

- Sakatu edo utzi aukeratu gabe **RESPUESTA DEL TELÉFONO** kontrol-laukia, pantaila sakatzean edo blokeatzean, pantaila-irudi bat egitean, zenbaki bat markatzean eta abar bibrazioa edo jakinarazpen-tonua egitea aktibatzeke edo desaktibatzeke.


-  Pantaila nagusitik eta aplikazio gehienetatik doitu daiteke bolumena (deiak, musika, bideoa...).

Pantailaren doikuntzak


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **DISPOSITIVO** aukeran, sakatu **Ajustes de pantalla**
3. Doikuntza-pantailan, egin hau:
 - Pantailaren distira konfiguratzeko, sakatu **Brillo**. Pantailaren distira eskuz doitzeko, kendu marka **Brillo automático** kontrol-laukiari.
 - Blokeatzeko pantailaren eta pantaila nagusiaren atzealdeak konfiguratzeko, sakatu **Fondo de pantalla**.
 - Pantaila automatikoki biratzeko funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke sakatu **Pantalla giratoria**. Funtzio hori aktibatuta badago, pantailaren orientazioa automatikoki aldatuko da zenbait eragiketa egitean (webgune batean nabigatzean, irudi bat ikustean edo mezu bat idaztean) telefonoari nola eusten diozun kontuan izanda.
 - Pantailaren itxarote-denbora konfiguratzeko, sakatu **Tiempo espera pantalla**. Telefonoa ez bada erabiltzen zehaztutako denboran, pantaila automatikoki blokeatuko da, bateria aurrezteko.
 - Pantaila-babesa aktibatzeke edo desaktibatzeke, sakatu **Salvapantallas**. Funtzio hori gaituta badago, pantaila-babesa automatikoki aktibatuko da telefonoa kargatu bitartean.
 - Sakatu **Tamaño de fuente**, pantailako letra-tamaina aldatzeko.

Data eta ordua konfiguratzeko

Lehenespenez, sareko data eta ordua erabiltzen ditu telefonoak. Eskuz ere konfiguratu daitezke data eta ordua.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **SISTEMA** aukeran, sakatu **Fecha y hora**.
3. Doikuntza-pantailan, egin hau:
 - Kendu marka **Automático** kontrol-laukiari, telefonoak ez ditzan automatikoki eskuratu sareko eguna eta ordua.
 - Kendu marka **Zona horaria automática** kontrol-laukiari, telefonoak ez dezan automatikoki eskuratu sareko ordu-eremua.
 - Sakatu **Establecer fecha**, eta lerratu hatz gora eta behera, telefonoaren data konfiguratzeko.
 - Sakatu **Establecer hora**, eta lerratu hatz gora eta behera, telefonoaren ordua konfiguratzeko.
 - Sakatu **Seleccionar zona horaria**, eta aukeratu nahi duzun ordu-eremua, zerrendan. Joan gora eta behera, ordu-eremu gehiago ikusteko.
 - Jarri edo kendu marka **Formato de 24 horas** kontrol-laukiari, 12 orduko eta 24 orduko formatuak txandakatzeko.
 - Sakatu **Formato de fecha**, data ikusteko modua aukeratzeko.

Sistemaren hizkuntza aldatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Idioma y teclado**.
3. Sakatu **Seleccionar idioma**
4. Hautatu hizkuntza bat zerrendan.

Fabrikako doikuntzak berrezartzea

Telefonoaren fabrikako doikuntzak berrezarri gero, telefonoaren memoriako datu pertsonal guztiak ezabatu egingo dira: baita posta elektronikoko kontuak, aplikazioen eta sistemaren doikuntzak eta instalatutako aplikazioak ere.



Fabrikako doikuntzak berrezarri aurretik, egin telefonoan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia.


1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **PERSONAL** aukeran, sakatu **Restablecer**
3. Sakatu **Restablecer datos de fábrica > Reiniciar teléfono > Reiniciar teléfono**
 Fabrikako doikuntzak berrezarriko dira, eta telefonoa berrabiarazi egingo da.

Linean eguneratzea

Tarteka, telefonorako eguneraketak argitaratzen dira Interneten. Eguneraketaren bat eskuragarri dagoenean, erabiltzaileak jakinarazpen bat jasoko du. Eguneratu aurretik, ziurtatu telefonoak nahikoa leku duela eguneraketa-paketearentzat.



Sistema eguneratzean, baliteke datu pertsonal guztiak ezabatzea. Telefonoa eguneratu aurretik datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egitea gomendatzen da.

Telefonoa eskuz eguneratzeko, pantaila nagusian, sakatu  > **Acerca del teléfono > Actualizar sistema > Actualización en línea**, eguneraketak bilatzeko, eta bete pantailan bistaritzen diren jarraibideak, telefonoa eguneratzeko.

Irisgarritasuna

Aktibatu edo desaktibatu telefonoak aurrez ezarritako edo instalatutako irisgarritasun-funtzioak.

1. Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, sakatu **Todas** fitxa.
2. **SISTEMA** aukeran, sakatu **Accesibilidad**.
3. Aukeratu aktibatu edo desaktibatu nahi dituzun funtzioak.

Lege-oharra

Copyright © Huawei Technologies Co., Ltd. 2014. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago eskuliburu honen zati bat erreproduzitzea edo transmititzea, edozein modutan eta edozein baliabideren bidez, Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak eta haren afiliatuek (Huawei) aldez aurretik idatzizko baimenik eman ez badute.

Baliteke Huawei enpresaren eta beste lizentzia-emaile batzuen egile-eskubideek babestutako softwarea izatea eskuliburu honetan deskribatzen den produktuak. Bezeroek ezingo dute software hori erreproduzitu, banatu, aldatu, deskonpilatu, desmuntatu, atera, alderantzizko ingeniarietza egin, alokatu edo esleitu; eta ezingo dizkiete hirugarren batzuei eman software horren lizentziak, baldin eta indarrean dagoen legeak ez baditu murrizketa horiek debekatzen edo autoreek ekintza horiek baimentzen badituzte.

Marka komertzialak eta baimenak



HUAWEI

HUAWEI

eta



Huawei Technologies Co., Ltd. enpresaren marka komertzialak edo erregistratuak dira.

Google Inc. enpresaren marka da Android™.

Bluetooth® logotipoak eta marka *Bluetooth SIG*, Inc. enpresarenak dira, eta Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak lizentzia-hitzarmen baten bidez erabiltzen ditu beti.

Dokumentu honetan aipatzen diren enpresa, zerbitzu, produktu eta marka komertzialen beste izen batzuk beren titularren jabetzakoak izan litezke.

Oharra

Dokumentu honetan deskribatzen diren produktuaren eta osagarrien ezaugarriak aldatu egiten dira instalatutako softwarearen, ahalmenen eta sare lokalaren doikuntzen arabera. Beraz, baliteke sare-operadoreek edo sare-zerbitzuen hornitzaileek ez aktibatu izana edo mugatu izana.

Hori dela eta, gerta liteke eskuliburu honetako deskribapenak guztiz bat ez etortzea eskuratutako produktuarekin edo osagarriekin.

Huawei eskubidea du eskuliburu honetako informazioa edo zehaztapenak aldatzeko, aurrez jakinarazi gabe, eta ez du izango inolako erantzukizun komertzialik.

Hirugarren batzuen softwareari buruzko adierazpena

Huawei ez da produktu honekin batera ematen diren softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen jabetza intelektualaren titularra. Beraz, Huawei ez du emango inolako bermerik softwarearako eta hirugarren batzuen aplikazioetarako. Halaber, Huawei ez die laguntza-zerbitzurik emango software eta aplikazio horiek erabiltzen dituzten bezeroei, eta ez du erantzukizunik izango softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen errendimenduaren gainean.

Softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen zerbitzuak eten edo amaitu egin daitezke edozein unetan, eta Huawei ez du bermatzen inolako eduki edo zerbitzuren eskuragarritasunik. Hirugarren batzuen zerbitzuen hornitzaileek sarearen bidez edo Huaweiarekin zerikusirik ez duten transmisio-tresnen bidez ematen dituzte edukia eta zerbitzua. Indarrean den legeriak ezartzen duen maila gorenean, espresuki ezartzen da Huawei ez duela izango erantzukizunik eta ez duela konpentsaziorik emango hirugarren batzuen zerbitzuen hornitzaileen zerbitzuengatik edo hirugarren batzuen edukia edo zerbitzuak bukatzeagatik.

Huawei ez du izango erantzukizunik produktu honetan instalatutako softwarearen legezkotasunaren, kalitatearen eta beste inolako alderdiren gainean, ez eta edozein modutan transmititutako hirugarren batzuen lanen gainean ere (besteak beste, testuak, irudiak, bideoak, softwarea...). Bezeroek beren gain hartuko dituzte softwarea instalatzearen edo hirugarren batzuen lanak transmititzearen edo deskargatzearen ondorio guztiak, baita softwarearen eta produktu honen arteko bateragarritasuna ere.

Kode irekiko Android™ plataforman oinarrituta dago produktu hau. Huawei egin beharreko aldaketak egin ditu plataforma horretan. Beraz, baliteke produktu honek ez onartzea Android plataforma estandarrekin bateragarriak diren funtzio guztiak edo ez izatea bateragarria hirugarren batzuen softwarearekin. Huawei ez du eskaintzen inolako bermerik edo ordezkartzarik bateragarritasun horri lotuta, eta espresuki uko egiten die arlo horiei lotutako erantzukizun guztiei.

ERANTZUKIZUNIK EZA

ESKULIBURU HONEN EDUKIA “BERE HORRETAN” EMATEN DA. EZ DU INOLAKO BERMERIK. APLIKATU BEHARREKO LEGERIAK HALA ESKATZEN DUEN KASUETAN IZAN EZIK, EZ DA EMATEN INOLAKO BERMERIK, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI. BESTEAK BESTE, EZ DA ESKAINTZEN ESKULIBURU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKION MERKATURATZE- EDO EGOKITASUN-BERMERIK HELBURU ESPEZIFIKO BATERAKO.

LEGEAK BAIMENDUTAKO MAILA GORENEAN EZARTZEN DA HUAWEI INOLA ERE EZ DELA IZANGO KALTE BEREZI, NAHI GABEKO, ZEHARKAKO EDO ZERBAITEN ONDORIOZKOEN ERANTZULE, EZ ETA ONURAK, NEGOZIOA, DIRU-SARRERAK, DATUAK, MERKATARITZA-FUNTSA EDO AURRERATUTAKO AURREZPENAK GALTZEAREN ERANTZULE ERE, GALERA HORIEK AURREIKUSTEKO MODUKOAK IZAN ZEIN EZ.

PRODUKTU HAU ESKURATZEKO BEZEROEK ORDAINDUTAKO ZENBATEKORA MUGATUKO DA ESKULIBURU HONETAN DESKRIBATZEN DEN PRODUKTUAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO GEHIENEZKO ERANTZUKIZUNA (MUGA HORI EZ ZAIO APLIKATUKO KALTE PERTSONALETARAKO ERANTZUKIZUNARI, INDARREAN DEN LEGERIAK DEBEKATU EGITEN BAITU MUGA HORI EZARTZEA).

Inportazioari eta esportazioari buruzko araudia

Bezeroek inportazioari eta esportazioari buruz indarrean dauden legeria eta arauak bete behar dituzte, eta eskuliburu honetan aipatutako produktua softwarea eta datu teknikoak barne esportatzeko, berresportatzeko edo inportatzeko behar diren gobernu-baimen eta -lizentzia guztiak eskuratu behar dituzte.

Pribatutasun-politika

Zure datu pertsonalak nola babesten ditugun hobeto ulertzeko, ikus pribatutasun-politika, hemen: <http://consumer.huawei.com/privacy-policy>.

Erreferentzia gisa soilik erabiltzekoa da eskuliburu hau. Baliteke eskuratuko produktua desberdina izatea: kolorea, tamaina, pantailaren diseinua... Eskuliburu honetako adierazpen, informazio eta gomendioek ez dute sortzen inolako bermerik, ez berariazkorik, ez inpliziturik.

Kontsultatu <http://consumer.huawei.com/en/support/hotline> webgunean zure herrialde eta lurralderako bezeroarentzako arreta-zerbitzuko telefono eta helbide elektronikoko eguneratuak.

Modeloa: G630-U20 & G630-U251 & G630-U10
V100R001_01